


# BITTOR BIKUÑA, OÑATIKO AUSTRALIANUA

**Bittor Bikuñak, Joxe Mari bere primuarekin, Trianatik alde ebenian, seguruenez ez eben uste izango bere "abenturiak" hainbeste iraungo ebenik. Hogeita hamasei urteren bueltan, pasautako denporiak emuten dauen soseguz disfrutauaz, berarekin kontu horreittaz zabal berba egitteko aukeria izan dogu. Ondoren zueiri be eskintten xatzuena.**

- **Bittor, nun jaixua zara?**  
Oñatin, Trianan, Altzingo etxieren onduan, orain dala 72 urte.
- **Herrittik alde egin aurretik, zein izan zan zure ofiziuua?**  
Zesterixan, Ogixaganian jardun neben hasiera batian, hortik Onraitanera eta azkenik, Australiara fan aurretik, Fundiziñuan.
- **Zergatik hartu zebeñ Oñatit-tik fateko erabagixa?**  
Nik eneukan ezkonketako asmorik; trankilidadia gura neben eta ezkondu ezkerro berriz, kitto, orduan ezin fan iñora. Hala ba, abenturero, nunbaittera fateko asmua sortu xaten.
- **Etxekuak eta lagunak zeo-zer esango otzuen ba?**  
Bai! nork aginndu neri orduan, iñork bez. Hori bai, hareik pent-sau ez halako urrin eguenik ha. Egon be, lekutan dago Australia.
- **Zergatik Australiara eta ez beste leku batera?**  
Hasiera batian, bi urterako Argentinara fateko ibilli nintzan. Buenos Airesetik 25 kilometrorra Oñatiko parejia bizi zan, gizona Antzokua eta andria, berriz, Goixenetxekua, eta ni eruateko ahalegiñetan ibilli ziran, fundiziñuan tiradore moduan lana egitteko. Venezuelara fateko aukeria be izan neben. Baiña Ameriketakua baztertu egin neben, hango jentia ez zan segurua eta.



Sindikatu-ko sekretarixuarekin, Gezaltzako Damiane-kin, amista-de haundixa geukan eta haren bitartez

enterau giñan Australiako gober-nua jentia hara karriau guran ebil-lela, langille faltan ziralako, eta hola erabagi geben bertara jotia.

- **Oñatit-tik aldegitteko, zeu bakarrik etziñan orduan?**  
Ez, nerekin primua, Joxe Mari Bikuña, etorri zan.

- **Lana poltsikuan zebeilla fan ziñain?**  
Keba, lana baegueta eta hemengo dobla bano gehixago irabazten zala bagekixen; hortik aurrera ezebez.

- **Honen aurretik, hortik zihar ibilitakua ziñain?**  
Ni soldau fateko bakarrik urtendakua nintzan, eta gaiñera ez urriñera, zerian, frontera egon nintzan eta.

- **Danera zenbat urte bota dozu herrittik kanpora?**  
37 urte neukala alde geben eta bueltau, barriz, orain dala 5 bat urte etorri nintzan; 31 bat urte egin dittut kanpua eta eztoz damurik.

- **Biajia, zela egin zebein?**  
Biajia Bilbon barkua hartuta eta Australiako gobernuaren kon-tura; beno, poltsikotik 3.000 pezeta ipiñi gittuan, janarena egitteko edo... Inguruko jente asko eta tartian bi oñatiar giñan; hortxe, jo ta egurra, pensau fan egin bihar gebela eta gu fan.

**H**an edan asko eta pastelak jateko ohitturia dago. Ni, berriz, gozozalia izan bai, eta hola gai-xotu nintzan



**- Barkuan pasautako egune-  
kin gogoraketan zara?**

Bai horixe, itxasuan 32 egun egin gittuan gero; horreittatik 16 lurra ikusi barik.

Akordaitten naiz, ekuadorrera ailegau baiño lehentxuago, Afrika aldera zixoian langosta plaga batekin zerua tapautan izan gebela. Puff, ha plagia, ha! dana tapauta, ikusi be ez! Arrain hegalarixekin be, sardiña modukuak, akordaitten naiz zela geraketan ziran barku gaiñian pasau ezindda.

**- Australiara heldu,  
eta hortik aurrera zer?**

Hasieran latzena lenguaia izan zan. Inglesak horrekin, zera txarra dakoi, peapa esan bihar dana. Guk, berriz, zerbeza bat edatia gura eta ezin edan.

Ailegau eta kanpamentu batera eruan gindduen. Segiduan lana emun oskuein mahatsa batzen, destajura. Mahatsa batuta gero, fertilizante fabrika batera pasau giñan. Ondoren azukar kaiñia. Kaiñia ebagi, batu, erre, danetik egitten geben. Lan hau benetan gogorra zan eta horrenbesterañoko zikiña, batak bestia ezagutu ezindda ibiltten giñala; lan ostian kendu alkondaria bai, eta lur gaiñian edozein lekutan tente geraketan zan; hortik pentsau zelako lan zikiña dan.

Kaiñia akabo zanian, *Iron and Steel*, 18.000 obrero dakon burdin fabrikara. Hantxe emun dittut urterik gehixenak, jubilau arte.

**- Urte honeittan sarritan etorri zara Oñatira?**

Behin bakarrik, fan da 7 urtera, 44 urte nittuala; amarengatik etorri be, makal neukan eta. Sei bat hilla-bete egingo nittuan hemen.


Joxe Mari ez, primua aurretik bueltau zan. Nobixia eukan hemen bai, eta ezkondu eta bertan geraketako etorri zan.

**- Inglesa zela ikasi zebein?**

Eskolak hartu barik, biharrak eragindda. Berba egitteko proble-

marik eztakot, eskribittekot berriz bai. Gero inglesetik aparte, italiano be ikasi neben; berbetan eta eskribitten be bai.

**- Nun egon zara bizitten?.  
200.000 habitanteko herri haun-**



Hona etorri nintzian, euskeraz jakin eta ezin egin; ziharo torpetuta nenguen.

di batian, Wollongong-en, Sidneytik 100 kilometrorra daguena. Apopillo moduan, urte gehixenak matrimonio batekin, andria alemana eta gizona italianua ziran.

**- Normalian, egunerokuan, ze bizimodu eruan dozu?**

Hementxe letxe: jan, edan eta lan.

**F**abrikari danak  
gatzen pastillak  
hartu bihar, hango  
beruarekin izardi  
asko botaten  
da eta».

**- Hemen gertaketan zanaren barri jasoten zebein?**

Bai, bertan egitten zan periodiko espaiñol baten bidez, "El español

en Australia", astian behin urteten ebena.

**- Lana akabotakuan, denbora librian, ze egitten zebein?**

Lagunarteko afarixak egin, zer-bezerixetan ibilli... Garai batian, neuk ezagutu neben, tabernak arratsaldeko 4retan erai eta bi ordura, 6retan itxi egitten zirala. Orain gabeko 11ak arte ezta tabernarik zerraitten. Hala be, igualtsu, lehen eta orain; hasi edaten eta, mozkortu ez, zoratu egitten dira hangiak.

Hemendik eskopetia be eruan neben, baiña laister aspertu nintzan konejua jaten eta italiano bateri saldu notzan.

**- Bertakuak, europearren aurreko indigenak, ezagutu dittuzu?**

Bai; jente oso ona da, txarrik eztakoi. Inglesak gehixenak hil zittuain. Asko herrittatik kanpora ibiltten dira, etxerik be eztaue jasoten, harripe

haundittan biziz. Bizimodu eskaxa honeña: lanik egin ez eta, parua kobranta, aurrera egitten daue.

Itxura aldetik, baltzak eta itxusi xamarrek dira; behin 40 urte ezkerro danak ule zurixak.

**- Hango jentia eta hemengua konparau ezkerro, zer?**

Eztago konparaitterik. Hanguak pastelak jan eta zerbezia edatiaz aparte, ezer gutxi. Hartuemunetarako hemengo jentia gurago dot, askogatik be.

**- Bi pasaporte izango dittuzu?**

Ez, kartia urtero bialdu dostai australiano egitteko, baiña eztot gura izan. Ni hemengua naiz.

**- Lehenago etxera bueltaittia etxatzu burutik pasau?**

Ez, han be ondo bizi nintzan. Harik eta pentsiñua etorri artian, han egon naiz. Hango bizimodua erosuagua zan. Zela etorriko nintzan ba hona, astuak moduan lana egittera?